

Eguneroko anormaltasuna

RAMON LABAIEN



Ez da ikusten Espainiako Estatu astintzen ari diren eskandalen bukaerarik. Banka gizonak ez direnean lapurrak, politikariak erakusten zaizkigu eskuak zintzen edo ta Galizako ontziren bat, jotatek, exkailu neurriko arrainen harrapatzen. Eta horiek in epaileen arteko gatazka direla batenik eta poliziaen zenbait ikintza kezkarigari bestetik eta hor ditugu drama nagusi baten konposante guztiak. Eleiza gizonak oraindiko ez, ez balego bezala, Espainiako gizaratearen goimaitetan, nihor osoki zintzo dabilenik.

Gauza da, ohitura bat garetela hasiak hartzen, gosariarekin tankera horretako berrien espe-rano izatea. Normal bihurtzen, edozein ikuspegiatik anormal dena... Eta, pittinka, nabaritze bat, Estatuan gertatzen ari direnatan, Gobernu dela hobendun, bainan ez denetan edo neurri osoan. Desastrean denok dugula zer ikusirik eta gobernu aldatzek ez duela gizar-tea aldatuko.

Espainiako Eskubikoan bizkar-hezur diren partetik, gogo gutxi, dirudienez, Aznar jaunaren eskuetan arazo publiko diren kon-punketa uzteko. Hor dabil gizona, batenik bes-tera eten gabe zaunka, eztarria urratuz eta gelditzen zaion kredibilitatea ahulduz. Bali-teke, bere lagunaren artean ugartzen ari direla susmatzen dutenak PSOEren alternatiba ez li-tzakeela PP izanen, baizik PSOE gehi beste zerbaitekin egositako opila. Gaur egun dutena bainan gogortxeagoa... Horrela gauzak, biba Felipe eta luzerako oraindiko Gonzalez jauna, uhaldearen zain... la bitartean, eusko pake itxura duen zerbaite lortzen dugun etxekoak, kristaldian aurkitzen bagara, ez gaitzen ito.

Ni ez naiz hangoa

TXILLARDEGI



HEMENGOA naiz ni. Hegoarra. Hegoar aber-tzalea.

Eta horregatik, hain zu-zen, gero eta maizago egoten naiz lotsatuta, ahalgeta. Zer espero dezakegu gure Iparat anaiengandik? Deus gutxi onik; eta laudonoriak, ere nekezago. Ni ez naiz Muskildikoa, edo-ta Iharrekoa, Behauzkoa, Mehainekoa... Nik dakita? Baio-nakoa!

Gero eta gogorrago zait ETBri isurtzen zaion espainiarkeria osoa irestea. Gaitza da hau, zinez: Euskal Telebista inoiz izango ote genuen ametsetan, eta orain... hau!

«Murcian lau hankako behi bat jaino da... Zamoran oso piper merkeak salitzen dira... Marbellako hotelak betirik daude... Barcelo-nan gona luzea ari da hedatzen...» Eta Limoges-en zer? Limoges non da? A! gabatxo herri bat! Ez da gure arazoa!

«De nuevo la guerra de la anchoa...» Fran-tsesak gora, frantsesak behera, espainiak gora, espainiak behera... Eta euskaldunak?

«Ayer, tras la derrota del Athletic, solo te-nemos al Real Madrid...» Gure telebistan, omen.

«Euskal Herriaren defendatzaileak» ez daki euskaraz, Gaztelaniaz daki. Eta kitto. Zer sen-ditu behar dute arbotiarrek, atarraztarrek eta hazpandarrek, horrelako 'defendatzaile' arrotz horren aurrean? Zer esango lukete 'gab-atxoengandik' urrutu senditzen diren horiek, 'gure' defendatzaile horrek frantsesez besterik ez baleki?

Ni ez naiz hangoa. Baina hango banintz, eta Donostiako naizelarik ere bai, ahalke naiz, arrunt. Ikusmolde etengabe horiek gure espainiarkuntzaren seinale iruditzen zaizki.

1571ko euskal Biblia aipatu da egun haue-tan. Biblia horren itzultzailea beskoiztarra zen. Hura ere ez zen hegoarra. Baina euskalduna eta euskaltzalea bai. Eta hau ez dugu entzun.

Korrika Garazitik abiatuko da gaur. Ipa-raldetik. Deskalabro espainolista honetan, txalo merezi luke AEK-k 'euzko' agintariengandik!

Zer ematen diote? Egurra! Bapoi!

● egin

Iparraldeko Kontseiluak

Azken hilabeteotan bi erakunde ofizial berri sortu dira, beren eremua, behin-goz, Iparralde osoa delarik, soil-soilik Iparraldea: Ga-rapen Kontseilua eta Hau-tetsien Kontseilua. Biak 1993an aurkeztu zen 'Pays Basque 2010' izeneko txostenaren ondorio dira.

Garapen Kontseilua pro-fesional, hautetsi, elkarte-ko ordezkari, sindikalista, fun-tzionari eta pertsonalitate ugari osatzen dute, Eusko Jaurlaritzak ere ordezkari bat duelarik. Bere helburua



Esan nizan nik bada, Elena! Telebistako hauek beti pasatu egiten dira publi-tatearekin! GORKA/EL MUNDO

ario desberdinetan euskal ikerketak egitea da, batez ere ekonomian eta kulturari: garapen ekonomiko, lu-rralde antolaketa, hegoal-dearekin kooperazioa, uni-bertsitate, euskara eta abar.

Hautetsien Kontseiluak

maila guztiako 65 hautetsi politikoak biltzen ditu eta bere lehendakaria Jean Jac-ques Laserre UDFko dipu-tatua da.

Bi Kontseilu hauetatik bat bera ere ez da publiko, elkarte pribatuaren legeei bai-

tagozkie. Nolabait esateko, Garapen Kontseilua sasi-gobernua izango litzateke eta Hautetsien Kontseilua sasi-legebiltzarra. 'Sasi' hitz-arekin esan nahi dena da ez batauk ez besteak ez duela ahalmen eta kompetentzia propiorik. Ez dira, beraz, Ipar Euskal Herriak behar duen erakunde politikoak.

Halare, beren bilakaera zentzu horretatik joango da edo, bestela, bi Kontseilu horiek, beren porrotarekin, aipatu den erakunde politiko horren beharra mundu guz-tiaren aurrean begi bistan jarriko lukete; berez, Ipar Euskal Herriko arazoak (lana eta euskara bereziki) eremu propioan aztertzea oso gauza onargarria baita.

EDITORIALA

LUZENDARIARI

Oliveriri, Intxaurrendoko ikastolatik

Gure haurrek oraindik segitzen dute eskolatuta oso baldintza eskasetan, hotza pasatzen, Urdintxon, Letamanden, eta barrakoietan. Ia bi urtez egon dira geldirik erai-kuntza berriaren lanak. Jaunkoia lagun, Martxo honetan omen doaz hastera berriro. Hara non ordea, Eusko Jaurlaritzak eman dizkion lanak enpresa kontratatuari 19 hi-labeteotan egiteko. Lehenago beti 12 hilabe-tekoak aipatu diren obrak. Ikastolari konsultatu gabe, eta zerorrek ere jada jakin dezakezen bezala, Oliveri jauna, batere fundamentuzko arrazoiarik gabe. Arin-eria-arbitraritate berri honek ordea, zalanz-tan jartzen du 1996ko Martxorako buka-tzako behar luketen obra hauek burutuak egotea, ikastetxe berria martxan jartzeko beharrezko beste lan guztiakin batera. 1996-97ko ikasturte hasierarako. Guraso bezala eskatzen dizugu beharrezko neuri-ak hartzeko, ez dezaten gure haurrek ikasturte bat gehiago hasi behar eskolatzeko kondizio minimoak betetzen ez dituzten eraikuntza desegoki hauetan, berez aspaldi

itxiak behar zutenak. Ardura beti zurea izango da.

VICTOR HIDALGO Donostia

HAEE eta «ez-ohizko» kontratazioa

Prentsaren bitartez irakurri dudanean HAEEko zuzendaria den Peru Bazakok esandakoak Legebiltzarrean, Ardanzaren koinatuaren kontratazioa dela eta, harridura eta-haserrea baino ez ditut sentitu.

Ardanza Lehendakariak HAEEri eska-tutako informean *affaire* honi buruz, era-kunde honek kontratazio hura legala zela adierazten zuen, zeren haien esanetan ez zegoen inor Nautikako Lizentziatuak dau-den lan-poltsan hizkuntza eskakizunak bete-tzen zutenik. Argudio hau laister hankaz-gora jarri zen, zeren lan-poltsa horretan egoteaz gain, nire eskuetan zertifikatu bat düt (HAEE berak emandakoa), non ager-tzen den hizkuntz eskakizun hura betetzen dudala.

Orain, parlamentarien aurrean. Bazako jaunak adierazten du ni ez ninduela kontra-

tatu HAEEK ez zuelako jakin non nongoen sasoi hartan, esanez hiru bider deitu zutela telefonoz. Egia da nire gurasoen etxetik kanpo egon nintzela, baina egia da ere bai nire senideetako inork ez duela inoiz HAEEren deirik jaso Nekazaritza eta Arrantza sailean lan egiteko. Etxetik kanpo egon nintzen bai, baina ez dut sekulan kon-takturik galdtu nire senideekin.

Esan behar dute ere bai nire gurasoen etxebizitzatik alde egin nuenen eskutitz bat bidali nuela HAEEri nire helbide eta telefono zenbaki berriak jakinarazteko.

Guzti hau gutxi balitz bezala, 1994ko urte osoan hilerio deitu nuen telefonoz HAEEra jakiteko ea lanposturen bat sor-tuko zen eta beti ezezko erantzuna jasotzen nuen.

Bazako jauna konparezentiari parlamentarioan. Ardanza koinatuaren kontratazioa «ez-ohizkoa» bezala definitu zuen. «Ez-ohizko» hitz hori ez ote da izango eufemis-mo bat irregulartasunez, kontradizioz eta gezurkeriaz beteta dagoen kontratazio bat justifikatzeko?

PEDRO M^a LAZAGA Luxemburg

GAIA JARRITA

Espainiako Elena Infanta



Gutziz betea den Borbondarrik ezagutzeke gaude gu, baina Infantak ez dakit nola Jaimito engainatu du. Errealeza elkarri joku emanez zeinen 'ondradu', duke, konde ta goi kargu militar trajez azaldu, Elenak berriz irrifar egin nahian hortxe dihardu, nazka ematen digute baina parra egingo diegu.

MAIALEN LUJANBIO

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



ODJK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordezkarria: INAKI URIA

Zuzendaria: MARTXEL OYAMENDI

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoltza nagusia: Gudarien etorbidea, 2/g / 20140 Andoain
30 02 22 / Erredakziofako faxa: 30 02 55 / Publizitateko faxa: 30 07 07

Arabak: San Antonio, 20-1.azken. / 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monasterio, 45-13.azken. / (Irindio dorrea) / 31011 Irutxua
17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1.azken. / 48003 Bilbo
410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pimesan 14, 17503 Potesa
kuztutia. / 64100 Baiona / # 59 59 35 35 / Faxa: 59 25 75 11